



• DEABRUAREN ABOKATUA •

“Txirrindularia izatea ez da osasungarria”

Mikel Astarloza | Sanpedrotarra

Aitak arraunlari izaten uzten ez ziolako hasi zen bizikletan. Geroztik neska lagunarekin baino gehiagotan egin omen du lo Iñigo Chaurreau lehengusuarekin. Errepidea laranja ikusten du orain. Pentsa, semaforoetan ere ez ei da gelditzen!

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Zu zara famoso?

Nire palmaresak erakusten duena baino ezagunagoa naiz. Txirrindulari bat ez da bere palmaresa bakarrik, eskaintzen duen irudia baizik.

Horregatik ez zarete politikoki bustitzen?

Orain arte Frantzia egon naiz baina banekien noizbait EAJrekin lotzen den Euskaltelen edo PPkatzat jotzen den Illes Ballearsen egon nintzekeela. Horregatik onena isilik egotea da.

Ez esan Espainiako txapelketa irabaziz gero...

Herrialde bateko txapelketa irabaziz gero haren maillota eraman behar!

Hori dopinaren itzala baino gogorragoa da!

Ni saiatzen naiz itzal horretatik at bizitzen baina zaila da. Batez ere, goizeko 6:00etan banpiroek esnatzen zaituztenean. Amorr handia ematen du.

Baina hain zarete insolidarioak...

Zeharo. Nahiz eta itxuraz denak lagun onak izan bakoitzak bereari begiratzen dio.

Euskal medioek Euskalteli baino ez diote begiratzen.

Egia da badaudela txirrindulari batzuk baztertuak daudenak, baina ez dakit atzerrian ibiltzeagatik den. Agian hortaz arduratzen ez direlako da.

Edo Berrian zutaberik ez daukatelako...

Badirudi txirrindulari izateagatik ezin duzula idazten jakin. Nik onartzen dut ikasle oso txarra nintzela baina horrek ez dauka zerikusirik idazteko gogoarekin.

Goizero baskularekin esnatzen zaituztetela jakingo balute!

Taldean obsesio handia dago pisuarekin. Goizeko medikua logelara sartzen zaigu, baskulan jarri, eta pisatzen dugunaren arabera aurpegi ona edo txarra jartzen du.

Gose aurpegia ikusten dizut.

Gosea pasatzea, nahi dudak guztia ez jatea, horixe da gehien kostatzen zaidana. Bizikleta gainean gustura sufritzen dut baina mahaian...

Eskerrak kirola egitea sana den!

Txirrindulari izatea ez da osasungarria. Ni kontzientzita nago egunero 200 kilometro egitea gorputzarentzat txarra dela.

Aizu, atsedan hartzeko ere ordaintzen dizute.

Eguneroko entrenamendua, otorduak, loa, masajea... Hogeita lau orduz gara txirrindulari.

Horregatik egiten duzue sarri-sarri izara garbieten lo.

Ez dakit hori ona edo txarra den. Etxera iristen zarenean baloratzen duzu zein ederra den etxean egotea.

Lanbide ederra aukeratu duzu ba!

Pentsa, Euskalteko sekulako fakturak ordainduz mantentzen ditut harremanak!

Azken modako segapotoa, MP3-a, Play Station-a... Pijo samarrak ez ote zareten...

Gure egunerokotasuna da. Bizikletan ibiltzeak lelotu egiten gaitu. Burbuila batean bizi gara.

Ongi etorri errealitatera!

Argi ibili beharra dago. Ez gara munduko zentzua eta bizitzak bere martxan jarraitzen du. ■